

GONTZAL LOPEZ BIZKAIKO AEK-KO HIZKUNTZ ARDURADUNAREN HIZKUNTZ KONTSULTA: GRAMATIKA BATZORDEAREN ERANTZUN-TXOSTENA

Gasteiz, 1997-IV-7

Lehenik eta behin adierazi behar dizugu une honetan ezin dugula kontsultatu BILEGI gure literatur corpus informatizatua. Hori dela eta, zuk bidalitako zenbait galdera erantzun erabatekorik gabe geratu dira. Batzordekideen iritzi, uste edo intuizioak hemen dituzu, baina, beharrezkoa den kasuetan, eskal literatur tradizioako datuekin kontrastatu gabe doazkizu. Espero dugu gure corpusa laster batean izatea berriz ere erabilgarri; orduan argituko dizkizuegu egitura horiek, aurkitutako datuek zerbait berririk edo garbirik adierazten duten neurrian behintzat.

Gatozen dudako egituretara:

1. *Letra xehez / xeheaz / xehearekin / xeheekin?*

Lehendabiziko kontua litzateke zein aditzekin erabili behar dugun sintagma, aditzaren araberako kasu-marka eraman beharko baitu honek.

Adibidez, *idatzi* aditzarekin badirudi *letra xehez idatzi* (instrumental mugagabea) eskatzen duela. *Baliatu* bezalako aditzak, berriz, badirudi (instrumental) mugatua eskatzen duela: *letra xeheaz baliatu*, *letra xeheez baliatu*. Era berean, *letra xehearekin eman du hitz hori* ere ez dirudi txartzat jotzekoa denik.

Beraz, oraingoz esan dezakeguna honako hau da: sintagmaren kasu marka, erabiltzen dugun aditzak eskatzen duela. Hala ere, gehiago aztertzeak dira oraindik bi puntu hauek:

— Mugatu / mugagabe kontua (noiz bata eta noiz bestea)

— Instrumental (-z) / asoziatibo (-kin) kontua

Puntu hauek argituko lituzketen lan monografikoak falta dira, nahasi samarra baitirudi oraingoz. Gainera, literatur tradizioako datuak ikusi beharko genituzke.

2. *Indio mozorrotu* ala *indioz mozorrotu*? Galdera zein litzateke: *Nola mozorrotu zara?* ala *Zer mozorrotu zara?*

Galdera egokia *Nola mozorrotu zara?* litzateke, eta ez *Zer mozorrotu zara?*

Bestalde, *-z mozorrotu (indioz mozorrotu)* ala *-ø mozorrotu (indio mozorrotu)* egituretako zein erabili den (erabili bada) jakiteko literaturako datuak begiratu beharko genituzke. Nolanahi ere, batzordearen ustez, *-z mozorrotu* bezalakoak berri samarrak dira, eta euskarak horren orde bestea egitura batzuk erabili izan ditu: hala nola, *indio jantzita*, *indio jantzian*, *indio mozorroan*, *indio arropetan (iparraldean)* eta abar. *Mozorrotu* aditza erabili izan da literaturan, baina esango genuke bakarrik agertzen dela gehienetan: *mozorrotuta joan zen kalera*.

3. *Euskal Herriko mapa* ala *Euskal Herriaren mapa*? Agian *Euskal Herri mapa*?

Egitura horien artean erabiliena, dudarik gabe, *Euskal Herriko mapa* litzateke. Hori da erabili izan dena eta erabiltzen dena. Dena den, honek ez du esan nahi *Euskal Herriaren mapa* gramatikalki gaizki dagoenik.

4. *Europa osoa ibili du*.

Literaturako datuak ikusi beharko genituzke erantzun zurrak emateko. Beharbada erabilera hori izan du literaturan; ez dakigu. Nolanahi ere, batzordeak bitxi samarra deritzo egitura horri. Adibidez, iparraldean *korritu* aditza erabiltzen dute horretarako: *Europa osoa korritu du*. Badirudi *Europa osoan zehar ibili da* ere tradizionduna dela.

5. "... *por si viene*"

Batzordearentzat honako hauek izan daitezke gaztelarazko adibidearen itzulpen egokiak:

Ohartxo bat utziko diot badaezpada (ere).

Ohartxo bat utziko diot etortzen bada ere.

Ohartxo bat utziko diot, etor daiteke eta.

Zuek emandakoa ez dugu ontzat hartzen:

**Ohartxo bat utziko diot badaezpada etortzen bada.*

6. Azken puntua dela eta, (Nola itzul "tener entradas"; "tener patas de gallo"; "dar (a alguien) un derrame cerebral"?) adierazi behar dugu ez direla era horretakoak Gramatika batzordeak erabaki beharreko kontuak; ez dira gramatikari dagozkionak eta beraz, ez dira Gramatika batzordearen kompetentzia. Nolanahi ere, hiztegi on baten laguntzarekin argi daitezke, zalantzarik gabe.

Jesús Mari Makazaga,
Gramatika batzordeko idazkaria